

Trafiko-Plana Getarian

Zarauzko Triatloiak 16:00ak eta 18:30ak bitartean izango ditu eraginak Getariako udalerrian, tarte horretan N-634 errepidea itxita egongo delako Zarauzko norabidean.

Bitarte horretan honako neurriak hartzeko proposamena aurkezten da, antolakuntzak burutu duen Trafiko Planaren arabera:

Getariara iristeko

Zarauztik

- **15:00tatik 17:00tara:** N-634 errepidetik joan ahalko da normaltasunez.
- **17:00tatik 18:40tara:** Zarautzen, eta Zarauztik Getariara bitartean N-634 errepidea itxi egingo denez, Getariara edo Zumaiara iritsi nahi duten autoek autopistaz egin beharko dute bidea. Horretarako antolakuntzak ticket batzuk banatuko ditu Zarautzen, autopistara sartu aurretik dagoen "Suhiltzaileen rotondan". Bitarte honetan, eta ticket honen bidez, zerbitzua doakoa izango da.
- **18:40tatik 19:45tara:** Zarautzen N-634 errepidea itxita egongo denez, autoak Zarauzko atzealdetik bideratuko dira (Araba eta Bizkaia kaleetatik barrena), eta gero hortik N-634 errepidetik jarraitu ahal izango dute normaltasunez (Bizkaia kaletik parrokia aldera jaitsiz).

Zumaiatik

- Itxita egongo da..

Getariatik irteteko

Zumaia aldera:

- Irekita uneoro.

Zarautz aldera:

- **15:30tatik 18:30tara N-634 errepidea itxita egongo da Zarauzko noranzkoan.**
 - **Saiheshbidea:** N-634 errepidetik Zumaira joan eta bertatik autopista hartu.
- Getariatik Zarautza bidean dagoen norabide aldaketaren ondoren boluntarioak egongo dira. Bertan adierazpenak emango dituzte, eta Zumaiatik barrena Zarautza autopistan iritsi nahi dutenei ticket bat emango zaie zerbitzua doakoa izan dadin.
- Getariarrek ticket hau eguna baino lehenago hartzea nahiko balute, Getariako Udaletxean jasotzeko aukera izango dute.

Garraio Publikoa

Lurraldebuseko aldaketen berri izan orduko Udaletxetara bidaliko dira oharrak.

Urgentziazko kasuak

- Anbulantziek zein suhiltzaileek lasterketako ibilbidean sartu ahal izango dute, hala behar izanez gero.